

## Komunikazio-eredu estrategikoa baliatzen da

Erakundearen komunikazio-estrategiei komunikazio-prozesu irekiak eta esperientziak trukatzea ezaugarri dituen presentzia digitalarekin eusten zaie. Teknologia digitalak eta sare sozialetako/profesionaletako plataformak hedatzen eta erabiltzen dira, eta, nolabait ere, ziurtatzen dute komunikazioa alderdi interesdunekin eta ikaskuntza-komunitate zabalagoarekin. Guztiak ere beste komunikabide batzuekin osatzen dira (esate baterako, aurrez aurrekoa), eta bi norabidetako komunikazio seguru eta eraginkorra ahalbidetzen dute erakunde barruan eta erakundetik kanpora.

### **Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita**

Erakundeak **komunikazio-estrategia esplizitua** du ezarrita, eta komunikazio-bide/-sistema egokiak identifikatzen eta erabiltzen ditu xede diren helburu eta talde ezberdinetarako, barne direla webgune bat, sare sozialetan presentzia eta ikaskuntzako plataforma bat.

### **Agerikoa da online presentzia dinamikoa**

Erakundeak **presentzia digital dinamikoa du (webguneak, sare sozialak)**. Erregularitasunez eguneratzen da eta alderdi interesdun guztiek erabiltzen dute, online komunikazioa, ikaskuntza, partekatzea eta lankidetzazabaldu eta laguntzeko nodo gisa.